



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2009-10-07

VIIURTEA 1.795 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

ABEL BARRIOLA PILOTARIA

«Txapelketa galtzea tokatu zait, gauzak nahi ez bezala joan dira eta»

LEITZA Pasa den apirilean belaunean min hartu zuen eta lesioak ez dio utziko Lau t'erdiko Txapelketa jokatzeko

ERREKUPERAZIOA Epeak jartzea baino «ongi jartzea» da orain bere lehentasuna; gertutik jarraituko du txapelketa <6-7



Herenegun aurkeztu zuten Udal ordezkariak eta eragileek Euskal Jaia, Arotzetxe baserriaren atarian. ENERITZ MAIZ

BIGARRENEZ EUSKAL JAIA ZABALDUKO DUTE HERRIKO TXOKOETAN

ANOETA «Herriko baserriarrei, babes osoa emateko eta jendearen parte-hartzea bultzatzeko» antolatu dute festa iganderako <4

Bertsolari Txapelketaren bigarren geldialdia Leitzan izango da

LEITZALDEA Larunbatean Udal Kiroldegian Txapelketa Nagusiko bigarren kanporaketa jokatu dute sei bertsolarik, 17:30ean <3

Lagunek eta senideek omenaldia egin diote Esteban Nietori

TOLOSA Larraitzen eginiko omenaldian «gobenuaren ekintzak» salatu zituzten <2

NURIA SANCHEZ
DYA-KO LANGILEA

«Jendeak A Gripearri dion beldurra kentzea nahi dugu»

TOLOSA Hitzaldia emango du DYAK bihar A Gripez <2

ANDONI EGIA EHNE-KO TOLOSALDEKO KOORDINATZAILEA

«Esneak egun duen prezioarekin ekoizleek ez dugu etorkizunik»

ORENDAIN «Elikagaiak zuzenean baserriarrei erosteko eskaria» egiten die kontsumitzaileei; «salduta» sentitzen direla dio baserriarrek <5

«Gaixotasunaren inguruan informazioa zabaldu nahi dugu jendeak beldurra galtzeko»

NURIA SANCHEZ > DYAk Irakaskuntza Eskolako arduraduna

Tolosa » A Gripearri buruzko hitzaldia emango du bihar DYAk, Kultur Etxean, 19:00etan; herritar guztiei irekia izango da.

INIGO TERRADILLOS

DYA Gipuzkoak istripuen eta gaixotasunen kopurua gutxitzeko prebentzioa dela gakoa aintzat hartuta, A Gripearri buruzko hitzaldia sorta bati emango dio hasiera. Lehen hitzaldia Tolosan izango da, bihar, Kultur Etxean, 19:00etan hasita. Herritar guztientzat ire-



HITZA

kiak dira hitzaldiok, eta doan izan-go dira. Nuria Sanchez da DYA Gipuzkoako Irakaskuntza Eskolako arduraduna.

Zein da hitzaldi hauen helburua?

Gure asmoa jendeari informazioa ematea da, eta neurri batean, jendea lasaitzea nahi dugu, beldurra gal dezatela.

Zergatik sortu da beldur hori?

Egun gutxitzen ari da, baina nabaritzen da oraindik. Horretan komunikabideek pisu handia izaten dute.

Zer motako informazioa emango duzue?

Erraza izango da. Herritar guztiek

ulertzeko modukoa. Gaixotasuna dugunaren susmoa sortu diezagukeen sintomei buruz hitz egingo dugu, baita hartu beharreko zaintzez eta kontuan hartu behar ditugun prebentzio neurriez.

Norentzat da bereziki interesgarria hitzaldia?

Guztientzat. Aita eta amentzat, pertsona helduentzat, gazteentzat, osasun munduan lan egiten dutenentzat... guztientzat izan daiteke baliagarria.

Guztiok gaixotuko omen gara.

Baia, hala da. Ia gehienok izango dugu gripe mota hau, baina asko ez gara konturatu ere egingo. Kontua da, gripe arrunta baino errazago pasatzen dela pertsona batetik bestera, birus berria delako, eta gure organimoa ohitu gabe dago. Mexikon jende ugari gaixotu zen, eta horrek alarma piztu zuen, baina ez da larritu behar, ia gripe arrunta bezalakoa baita. Prebentzioa da garrantzitsua.

Mahala TTTko Aitor Regillaga hirugarren Euskadiko Txapelketan

Kirola » Taldeko sei kidek hartu zuten parte zirkuituaren azken proban; Bartzelonako Ironmanean bi kidek hartu dute parte.

ERREDAKZIOA

Pasa den larunbatean Euskadiko Duatloi Kros Txapelketa jokatu zuten Beasaingo Arriaran auzoan. Mahala Tolosaldeko Triatloi Taldeko 6 kidek hartu zuten parte, eta horietatik, aipamen berezia merezi du Aitor Regillagak hirugarren postua lortu baitzuen.

Euskadiko zirkuituaren baitako azken proba izan zen Beasainen jokaturikoa. Partaideek 6 kilometro korrika, 20 kilometro bizikletaz eta 3 kilometro korrika egin behar zuten mendi zirkuitu gogor eta aldapatsu batean. Mahala TTTko Aitor Regillagak Euskadiko 3. postua erdietsi zuen lasterketa «biribil» batean ostean, berretzat

denboraldiko hirugarren podiuma izan zelarik. Udan lehiaketa askotan punta puntan ibili ondoren sari bikaina izan zuen denboraldiko azken proban. Taldekakoan aldiz ezin izan zuten podiumera sartu, eta 4. postuarekin konformatu behar izan zuten nahiz eta azken metroa arte horren atzetik lehiatu ziren. Parte hartu zuten gainontzeko taldekideei dagokienez, Iñaki Insaustik 26. egin zuen, Alberto Vaquerok 29., Ion Artutxak 54., Alar Sevillanok 69. eta Edu Gonzalezek 72. postuetan iritsi ziren helmugara.

Ironmana Bartzelonan

Bestalde, iragan igandean Bartzelonan jokatu zen Ironmanean ere parte hartu zuten Mahala TTTko kideek. Jose Luis zabalak 10 ordu eta 32 minutuko denbora egin zuen, eta Aitor Mendiak 11 ordu 16 minutu. 3,8 kilometro igerian, 180 bizikletaz eta 42 korrika egin behar izan zituzten.



Abaltzisketako Larraitz auzoan dagoen monolitoaren aurrean egin zuten omenaldia. HITZA

Esteban Nieto omendu dute bere lagun eta senideek

Tolosa » Amnistiaren Aldeko Mugimendutik azken hilabeteetako «Gobernuaren ekintzak» salatu dituzte.

ERREDAKZIOA

Esteban Esteban Nieto omendu zuten asteburuan Abaltzisketako Larraitz auzoan dagoen monolitoaren aurrean. Bere gertuko eta lagunak izan ziren han, eta «egungo espetze politika eta bere ondorioak» salatu zituzten.

Tolosako Amnistiaren Aldeko Mugimendutik adierazi dutenez, «10 urte betetzen dira espetze politika kriminalak Esteban Esteban Nieto erail zuenetik, eta 10 urte hauetan Esteban bezalako gure senide eta lagunak omentzeko dugun eskubidea polizial eta judicialki etengabe jazarria izan bada ere,

azken hilabeteotan Estatuaren krudelkeria era bortitzean pairatu dugu». Joan den astean izan zen Gudari Egunean Zarauzko hilerrian Txiki-ren omenaldia egitea debekatu izana jarri zuten adibide bezala.

Halaber, Amnistiaren Aldeko Mugimendutik horrelako ekin-tzekin biktimen duintasuna bermatu nahi izatea zalantzan jartzen dute: «Kaleetatik kendutako presoaren argazkiak tirokatuz? Gure senide eta lagunak omenaldiak debekatu? Txiki, Joxi, Joxean, Txirrita, Esteban eta eroritako beste euskal gudariak ez al dira biktimak?», galdetzen dute, eta «biziar-teko espetze zigorra ezarri dieten Pello Odrizola edo Maritxu Uz-kudun bezalako presoak ez al dira biktimak?», gehitzen dute.

Tolosako Amnistiaren Aldeko Mugimenduen ustetan, «argi dago Espainar Estatuarentzat eta

Lopezren Gobernuarentzat gatazkaren konponbiderako tresnak zein diren: ilegalizazioa, tortura eta euskal herritarren aurkako errepresio bortitza».

Halaber, Remi Ayestararen heriotza ere ekarri zuten gogora omenaldian parte hartu zutenek, eta «bahiketa eta kolaborazio eskaeren kasu gehiago» ere salatu zituzten: Juan Mari Mujikaren kausa, Lander Fernandezena, Alain Berasteginena eta Daniel Saralegirenena eta Jon Anza, hain zuzen. «Aurrez ere gerra zikina ondo ezagutzen duen herria da gurea, eta kalean, mobilizazioetan erantzun behar diogu XXI. mendeko gerra zikinarri», adierazi zuten.

Esteban Esteban Nieto 1999. urtean hil zen, kaleratu eta 5 hilabete eta 20 egunera, «espetzeko medikuen utzikariaren erruz garatutako minbiziaren eraginez», salatu zuten.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Txapelketa Nagusiak Leitzan egingo du bigarren geldialdia, larunbatean

Bertsolaritza » Zestoan jokatu zen lehendabiziko kanporaketa, eta orain eskualdean egingo dute bigarrena saioa.

ESTI EZEIZA

Joan den astean abiatu zen bertso-laritzaren errusiar mendia. Lehendabiziko geldialdia, hilaren 3an Zestoan egin zuen, eta orain, bigarrena, gure eskualdean gauzatu du, Leitzan, hain zuzen ere. Bertsolari Txapelketa Nagusiko bigarren final-laurdena jokatu da larunbat honetan, Udál Kiroldegian. 17:30ean hasiko da saioa eta bertan ariko dira, Iñigo Olaetxea, Ainhoa Agirreazaldegia, Iñigo Manzisidor *Manxi*, Ibon Ajuria, Sabier Sukia eta Etxahun Lekue. Aurkezle lanak, eta aldi berean, gai-jartzailearenak Fernando Anbustegi elizondoa egingo ditu.

Parte-hartzaile bakoitzak hamabost bertso puntuagarri bota beharko ditu. Hasteko, binaka, gaia emanda, hiruna bertso bota beharko dituzte zortziko handian. Ondoren, binaka baita ere eta gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian. Gero, banaka, lehen puntua emanda hiruna bertso abestuko dituzte zortziko txikian. Honen atzetik, binaka, eta gaia emanda, hamarrek txikian hiruna bertso botako dituzte. Amaitzeko kartzelakolana etorriko da. Bertan, banaka, gaia emanda, hiru bertso botako dituzte nahi duten doinu eta neurrian.

Leitzako saioa irabazten duena, zuzenean, Bergarako finalerdira ko sailkatuko da. Hau azaroaren 7an izango da, eta bertan ariko da Aitor Mendiluze eskualdeko bertso-laria ere. Gaintzeko finaler-



Sei bertsolari aritu ziren lehian joan den larunbatean Zestoan; Jone Uria izan zen garaile bertan. HITZA

dietako bertsolariak, puntuazioaren arabera sailkatuko dira. Hau da, final-laurdenetan, puntu gehien lortzen dituzten 11 lagunek, finalurrekoetarako txartela eskuratu dute.

Joan den asteburuan, Zestoan jokatu zen lehendabiziko final-laurdena, eta bertan Jone Uria gertxoarra izan zen garaile. Uxue Alberdi geratu zen bigarren, 160 punturekin, Uriak baino 1,5 gutxiago.

Sarrerak salgai

Euskal Herriko Bertsotzale Elkartek inoiz baino aukera gehiago eman nahi ditu saioetako sarrerak aurrez erosteko. Hala, larunbateko saiorako sarrerak salgai daude eta internet bidez eskura daitezke. www.bertsosarrerak.eu ataria egokitu dute horretarako. Honek Txapelketa Nagusiko webgunetik, www.txapelketanagusia.eu-tik du lotura zuzena.



» IÑIGO OLAETXEA

Lesakarra da, eta 34 urte ditu. Garrantziolaria da ogibidez. Nafarroako Txapelketan ohiko finalistetako da. 2007ko Txapelketan hirugarren postua lortu zuen eta 2009an berriz, laugarren amaitu zuen. Bigarren parte hartuko du Txapelketa Nagusian. Lesakako bertso eskolan egindako eta ikasitako bertsolaria da.



» AINHOA AGIRREAZALDEGI

Elgetarra sortzez, Zarautzen bizi da eta 31 urte ditu. Euskal Filologian eta Alemaniako filologian lizentziatua, egun helduen euskara irakaslea da. Bertsotzale elkarteko ikerkuntza arduraduna eta zuzendaritzako kidea izan da. Aurtengoa bere bigarren Txapelketa Nagusia da.



» IÑIGO MANZISIDOR

Zarautzarra da eta 32 urte ditu. Bertsotan 14 urterekin hasi zen, aintona ere bertsolaria zuen. Musika-ria, hainbat taldetan ibilitakoa da. Hamar Bortuteko kidea da. Bigarren Txapelketa Nagusia izango du hau. Zarauzko Etxe-Beltz bertso-eskolan hasi zen ikasle gisa, eta irakasle dabil orain. Bestalde, Zarauzko Motxian helduen bertso-eskolako kidea da.



» IBON AJURIA

Gernikarra da eta Bilbon bizi da. 32 urte ditu. Ingeles Filologian eta Alemaniako Filologian lizentziatua da, eta Atzerriko Hizkuntzako Magisteritza diplomatu. Irakaslea da. 2006ko Bizkaiko Txapelketan finalista izan zen. Lehenengoz parte hartuko du Txapelketa Nagusian. Gernikako bertso-eskolan hasi zen, orain Gernikako Lili bertso eskolara ere joaten da.



» XABIER SUKIA

Oriotarra da eta 33 urte ditu. Gizarte zientzien komunikazioan lizentziatua dago eta Euskadi Irratien *Hitzajolas* bertso irratisaioaren zuzendari eta esatari gisa egiten du lan. Bertsolari Txapelketa Nagusian aurten hartuko du parte lehenengoz. Orioko Errikotxia eta Usurbilgo Bota Puntutuba bertso eskoletako kidea da gaur egun.



» ETXAHUN LEKUE

Larrabetzuarra da eta 29 urte ditu. Musika Hezkuntzako ikasketak egin ditu eta hezkuntza arautuan eta bertso-eskoletan bertso-gintzako klaseak ematen egiten du lan. Bizkaiko Bertsolari Txapelketan azken lau edizioetan finalista izan da eta Txapelketa Nagusian bigarren hartuko du parte. Larrabetzuko Itallen bertso-eskolako kidea da.

Laburrak

Bihar, zinema bonoak erosteko azken aukera

TOLOSA • Hilabete honetan zinemarako bonoak erosteko epea bihar amaituko da. Ohi bezala, Zine-Forumeko saioen aurretik eskuratu ahal izango dira sarrerak. Hau da, 19:15 eta 21:45 baino lehen. Edozein saioetarako bonoak 12 euro balio dute eta gaueko saioetarako, 10. Ikuslearen eguna barne. Prezio bera dute arratsaldeko saioetarako.

Bihar, Zine-Forumean, 'Un lugar en la cumbre' ikusgai

TOLOSA • Bihar, Zine-Forumean, *Un lugar en la cumbre* filma ikusteko aukera izango da. Ohi bezala, jatorrizko bertsoan. Lehendabiziko saioa 19:15ean izango da eta bigarrena, 21:45ean. 1959an egindako film hau Jack Claytonek zuzendu zuen. John Brainen nobela batean oinarrituta dago bi Oscar irabazi zituen lana. Joe Lamptonen bizia kontatzen du, haren anbizio handiko mutil gazte bat da. Hala, Ingalaterrako herri txiki bateko lantegi batean kontulari lana onartu ostean, ohartzen da bertako herritarretz aprobetxatzeko aukera duela.

T Telefonoak

Larrialdia. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

TOLOSA.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Lurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Urriaren 11n bigarren urtez herri osoa Euskal Jaian murgilduko da

Anoeta » Euskal Jaia Udalak eta herriko hainbat eragilek antolatuta dute; Herriar guztiak gonbidatuta daude festara.

ENERITZ MAIZ

Anoeta herria, igandean, euskal ukituz jantzia esnatuko da; baserri mundua eta euskal ohiturak agerian geratuko dira. Euskal Jaia, bigarren urtez jarraian, Udalak eta herriko hainbat eragilek antolatuta egingo dute. Herenegun, Arotzetxe baserriaren aurrean, urriaren 11n ospatuko duten Euskal Jaia aurkeztu zuten. Denei gonbita lutzazarekin batera, helburuak eta egitaraua aurkeztu zituzten.

Erronkagarrantsutzat hartua dute bai Anoetako Udaleko ordezkariak eta baita herriko hainbat eragilek, bigarren urtez Euskal Jaia antolatzearena.

Helburu nagusia «herriko baserriar eta nekazari guztiei, laguntza eta babes osoa ematea da. Beraien produktuak, inongo bitartekaririk gabe saltzeko aukera izan dezaten». Era berean, jendearan parte-hartzea bilatu nahi dute.

Eskerrak eman nahi izan dizkiete «laguntzen aritu diren guztiei eta datozten urteetarako berdín jarrai dezatela eskatu nahi diegu eta herri mugimendua bizirik mantentzen saia daitzelara».

Euskal Jaia ospatzearekin «gure naziotasuna, kultura eta hizkuntza lau haizetara zabaltzeko aukera ematen digu», azpimarratu zuten aurkezpen ekitaldian.

Bestalde, dei egin diete herriar guztiei, «baserriko produktuak



Astlehenean, Arotzetxe baserriaren aurrean egin zuten aurkezpena. E. MAIZ

azokan eros ditzaten eta guztiak festa egun handi honetan, baserriar arropa jantzita atera daitezten kalera».

Ekintza ugari

Eguna, 09:30ean hasiko dute Herriko Txistularien kalejirarekin.

Hauen ostean, 10:00etan, Donostiako Alde Zaharretik etorriko diren joaldunen zintzarri doinuek esnaraziko dute Anoeta herria. Eta hauen martxarekin batera, azoka irekitzat emango dute 13:30ak bitarte. Bertan, eskualdeko baserri-tarrak eta artisauak izango dira beraien produktuak erakutsi eta sal-

du ditzaten. Nahiz eta festa hasia egon, jaiaren aurkezpena, 11:00etan egingo dute dantzari eta Loatzo Musika Eskolako ikasleekin. Goizean zehar, pasa den urte-tik alderatuta, sagardo nola egiten den erakutsiko dute. Plazan bertan tolaera jarriko dute eta sagardo nola egiten den erakutsiko dute.

14:00etan, herri bazkaria egingo dute frontoian eta guztiarentzat, txekorren erreko dute. Bazkaldu ondoren, herri kirol ezberdinak ikusteko aukera izango da. Alde batetik, Alkiza, Hernialde, Irura eta Anoeta herrien arteko aizkora apustua izango da eta bestetik, harria jaso-

zuten Beñat Luluaga eta Beñat Jauri regi anoetar gazteak ariko dira.

Herri kirol saioaren ondoren, herriar etabertarutakoek jateko aukera izan dezaten. Eta plazan bertan, Itzel Taldearen erromeria izango da. Eguna bukatzeko berri, 23:00etatik aurrera Dj Bag izango da.

Euria egingo balu, azoka, herri kirolak eta talogileak frontoian izango lirarteke.

Saria postu politenari

Postu politenak saria jasoko du Anoetako Euskal Jaiaren barruan.

» EGITARAUA

Euskal Jaia

- **09:30.** Herriko Txistulariekin kalejira.
- **10:00.** Donostiako Alde Zaharreko Joaldunen Kalejira.
- **10:00-13:30.** Eskualdeko baserriar eta artisauen azoka plazan. (Euria egingo balu, frontoian).
- **11:00.** Jaiaren aurkezpena, dantzariekin eta Loatzo Musika Eskolako ikasleekin.
- **Ondoren.** Loatzoko txaranga, Donostiako Alde Zaharreko Joaldunen eta dultzaineroak plazan.
- **12:00.** Erakustaldia: Sagardoa nola egiten den.
- **14:00.** Herri Bazkaria Frontoian: txekorren errea.
- **17:30.** Herri Kirolak plazan. Aizkora apustua eta harria jasotzea.
- **Ondoren.** Talogileak eta Itzel taldearekin erromeria.
- **23:00.** Dj Bag.

Azokako postuetan produktuak erosten dituztenen artean, txartelak banatuko dira eta jarraian txartel horren bidez, erosleak postu onenari botoa emateko aukera izango du. Behin azoka bukatzean, boto guztiak batu eta posturik politena nor den jakingo da. Saria jasotzen duen postuak, Bodegon Bentaleak eskaini duen saria jasoko du, hau da, bi laguntzako bazkari edo afari bat izango da. Postu politenari botoa emateak ere bere saria izango du. Bozkatuen artean, bertako produktuez osatutako saski eder bat bozkatatuko dute.

Bazkaritarako, txekorren erreko dute eta jada 280 lagunek erosi dute txartela. Oraindik erosi ez duenak aukera izango du erosteko, egunean bertan txartelak salgai jarriko baitituzte.

Euskal Jaia prestatzen pasatako egun eta ordu guztiek, ea fruitu ona ematen duten igandean eta eguraldia ere lagun izaten duten anoetarrek.

Villabonako Malkar Astialdi taldeak ikasturte berria ostiralean hasiko du

ERREDAKZIOA

Villabonako Malkar astialdi taldeak, urriaren 9an emango dio hasiera ikasturte berriari.

Malkar Astialdi Taldearekin jolasak, irteerak, asteburu pasak, udalekuak eta abar egin ahal izango dute Villabonako gaztetxoek. Ostiralean, DBH 1ekoak, arratsaldeko 18.00etan, DBH 2koak 19.00etan eta DBH 3koen kasuan 20.30ean egingo dute bilera.

Apuntatzeko ez da ezer egin behar, ostiralean bertan azaldu eta listo. Informazioa gehiago nahi izanez gero, www.malkar.tk orrialdean aurkitzen da.



Isurketa izan da Amezketak errekan

AMEZKETA • Foru Aldundiak baieztatu duenez, Amezketak errekan isurketa izan da, Amezketak herriatik bertatik Oriabaiarainoko tartean. Arrain ugari hilda agertu direla azaldu dute eta Foru Aldundiko teknikariek laginak hartzen aritu ziren atzo. Oraindik ez dute azterketa egiterik izan eta beraz ez dute zehaztu zein produktu isuri den errekarra. Atzo Amezketak herrigunetik igarotzean erreka kolore zurixka zuen eta urak hartzen zuen landareria ere zuria zegoen (argazkian). Jesus Iñurríta alkateak azaldu duenez, «batzuetan zuri kolorekoa jaisten da erreka. Papeletatik jakinarazi izan dutenez, erreka zuritzen duen produktua ez da izaten kaltagarria». I. GARCIA

E Elkarrizketa

ANDONI EGIA ▶ Baserritarra eta EHNEko Tolosaldeko koordinatzailea

Orendain » Oso kritiko agertzen da Andoni Egia egun esne ekoizleek duten egoerarekin; elikagaiak zuzenean baserritarrei erosteko eskaria egiten die kontsumitzaileei.

IMANOL GARCIA

Larreta baserriko Andoni Egiak (Orendain, 1981) esne behiak ditu eta orain dela bi urtez EHNE sindikatuko Tolosaldeko koordinatzailea da. Ez dio etorkizun ona ikusten bere buruari ez orokorrean beste esne ekoizleei ere.

Zer aldarrikapen egiten duzue EHNEtik esnearen inguruan?

Gehienbat esnearen prezioari begira gaude. Kontuak kudeatzen dutenek garbi esaten dute memento honetan galeretan gaudela, eta gutxieneko prezio bat behar dugula galera horiek kentzeko. Bestela, horrela segitzen badugu, bukaera batera iritsiko gara. Batzuk esaten dute igoko dela, baina hilabeteak pasatzen ari dira eta prezio berdinean gaude. Horrela ez daukagu etorkizun handirik.

Zeinek zehazten du prezioa?

Guk esnea saltzen diogu Kaiku kooperatibari. Batzorde bat dago eta horrek negoziatzen du Iparlartekin. Baina, azkenean, industrien artean, ez bakarrik hemengoak, estatu guztikoek eta egun Europa guztikoek, denak elkar hartuta daude eta prezioak finkatzen dituzte. Ez da enpresa batetik bestera alde handirik izaten. Esaten ari dira Asturiasen gu baino gehiago ari direla kobratzen, zortzi pezeta gehiago litroko. Batzuk ukatu egiten dute, beste batzuk egia dela esaten dute. Zortzi pezeta gehiago kobratzen ariko bagina orain askoz hobeto egongo ginatke. Azkenean industrien arteko akordioak izaten dira eta nolosalmenta zuzena ez da izaten... Erabilia edo heldutasentitzen zara.

Orain zenbatean ordaintzen zaitezue litro esnea?

46 pezeta litroko. Iaz egon ginen orain baino 25 pezeta gehiago kobratzen. Pentsua sekulako prezioan zegoen orduan. Pentsua ez da jaitsi, ezta gutxiago ere, esnearen prezioa jaitsi dena. Gutxieneko prezioa erabaki beharko litzateke esnearentzako. Horrela segitzen badugu behintzat, iritsiko da une bat ezingo diogula eutsi.

Prezioa zenbat igo beharko luke?

Lurgintza kudeaketa enpresak azaltzen duenez, lau-bost pezeta igo beharko litzateke galerak ez izateko. Baserrri ezberdinetan egindako proben arabera ateratu zuten datua, aurreneko sei hilabeteetan egindako azterketatik. Prezio baxua dela norberak ikusten du. Ordu pila bat sartzen ditugu eta



I. GARCIA

«Ez daukagu etorkizunik egun esneak duen prezioarekin»

gure soldata ez dugu kontuan hartzen. Segitzen dugu aurrera gastei justu-justu buelta emanez eta segi eta segi. Egoskorra garelako ere bai, eta behar dugulako izan, baina gure ordua ez dugu baloratzen.

Eta nolatan dago horrela egoera?

Askotan ez dugu ulertzen gertatzen ari dena. Hemen behar den esnearen %30a sortzen dugu. Ez dute hemengo esnea baloratzen, kanpotik etorritako hirutatik birekin funtzionatzen badute, berez egin beharko litzatekeena da hemengo esnea baloratu. Batek esaten zuen bezala, mimatuta egin beharko ginatke. Bestela ikusten da bukatu egingo dela hau eta kanpoko esnearekin edo hautsekin funtzionatu dela. Esnearekin bezala haragiarekin ere berdina gertatzen da.

Kaikuren aurrean egin dituzue protestak. Aurrera begira besterik egitea pentsatzen duzue?

Lehen ere egin ziren mobilizazioak administrazioen aurrean, su-

permerkatu handien aurrean, enpresaren aurrean, baina ez zuen inongo emaitzarik eman. Jendea mugitu zen eta espero zuen esnearen prezioa igotzea, baina hori ez zen eman eta orain jendeari esatea berriz mobilizatu behar dela... Pixka bat desmoralizatuta daude. Esnea ekoizten urte asko daramate-nek esaten dute beti horrela izan dela, beti enpresaren menpe egon direla, batzuetan ondo, beste batzuetan gaizki...

Europar ere ari dira protestak egiten. Ez da, beraz, Euskal Herri mailako arazoa bakarrik.

Lehen esaten zen beti, kanpotik ekartzen zela esnea, merkeago ekartzen zela, baina gero ikusten da Frantzia eta Alemanian protestan ari direla. Ikuste esneanola berak botatzen zuten... Niretzako sekulako duintasuna erakutsi dute baserritarrek.

Badiriudi egoerak lehertu arte iraungo duela.

Europa guztian gaizki badabilta, nik ez dakit esnea nondik sortu be-

harko duten, edo hautsetatik edo zer zerrikeria klase egingo duten. Askotan ez da ulertzen. Esaten da oinarriko elikagaia dela esnea, hainbeste gauza egiten dira berarekin... Ez dakit esnearekin bukatzea nahi duten.

Salmenta zuzena izan daiteke irtenbide bat?

Salmenta zuzenaren kontua bulztatzen dugu. Kopuru handiak ateratzen badituzu salmenta zuzenarekin ez dago irtenbide handirik. Baina behi gutxiago dituenak salmenta zuzena egingo balu, esne-makina jarrita asmatuko luke bete-betean. Inbertsioa ikuilu handiago batean egin beharrean, esne-makina batean egingo balu, nikuste dutasmatu egingo lukeela. Tolosaldean oraindik ez da jarri, baina pentsatzen dut jarriko dela. Ordizian jarri duten makinak harrera osa ona izan duela esaten dute.

Nola dago esne-makina jartzearena Tolosaldean?

Italian makina asko daude jarrita,

esne gordinarekin. Nafarroan Elizondan jarri zuten aurreneko makina. Hemen jendea hasieran nahiko animatuta zegoen, baina gero konturatzen zara inbertsio bat egin behar dela. Aurretik esnea saltzen duenak errazago du, ez duelako berriz lokala egin beharrik. Gu bezalako batek esnea pasteurizatze lokala egin beharko luke eta zero pentsatu zenbateko irtenbidea emango zigun. Makina hori oso ondo ibilita agian 400 litro salduko ditu egunean eta guk bi mila litro baino gehiago ateratzen ditugu. Agian kopuru horietara jaitsi behar gara eta hortik bizi gaitzkeela pentsatu, baina pixka bat hoztuta gaude.

Gutxieneko prezioa erabaki beharko litzateke esnearentzako; bestela ezingo diogu eutsi

Esne-makina jartzen duten lekuetan animatuko nioke jendeari hortik kontsumitzera

Abelburu gehiago dituenak hobeto ariko da?

Orduan eta buru gehiago, inbertsio gehiago eginak izango ditu. Kontua da noiz eginak dituen. Orain dela hamar urte egin dituenak hobeto egongo da. Orain bi urte egin dituenak okerrago. Obra gutxi egin dituenak hiri egongo da hobetoena, azkenean horrek asmatuko du. Makina jartzen duenak ere inbertsioa egin beharko du. Makina bera eta baita esnea pasteurizatze. Nik horrekin ez dut bat egiten, niretzako esne gordinarekin funtzionatu beharko luke, baina legeak horrela zehazten du. Horrek eskatzen du lokal bat, esnea pasteurizatze makina...

Zer esango zenieke kontsumitzaileei?

Esne-makina jartzen duten lekuetan, jendeari animatu hortik kontsumitzera. Hor behintzat, niretzako, baserriko esnea izango dute. Kaxetatik edaten den esnea niretzako ez da esnea, ur-esnea da. Nik behintzat jendea animatuko nuke probatzera, esnearen gustua zer den jakiteko. Eta esnearekin bezala haragiarekin edo barazkiekin. Zergatik ez txekor bat erosi laubost familiren artean? Edo orain hasita dauden bezala, haragi pakeak erosten. Nik animatzen diet kontsumitzaileei ahal dela elikagaiak zuzenean erostera.

Baserrian bertan zuek saldu dezakezue esnea?

Etortzen denari salduko diot, gus-tura gainera. Bat edo beste etortzen da, baina lehen gehiago etortzen ziren. Orain erosotasunarengatik dena supermerkatuan erosten da. Baserrietan egiten den zuzeneko salmenta hori esne-makinarekin kalera eramana nahi da.

E Elkarrizketa

ABEL BARRIOLA ▶ Pilotaria



JAGOBA MANTEROLA/NAIARA GARZIA

«Gauzak nahi bezala joan ez direnez txapelketa galtzea tokatu zait»

Pilota » Lesionaturik egon arren gertutik jarraitu du pilota mundua leitzarrik. Lau t'erdiko Txapelketari begira bi izen nabarmendu ditu.

ASIER IMAZ

Apirilaren amaieran, partida bat jokatzen ari zela, pilota baten bila korrika abiatu zen Abel Barriola (Leitza, 1978); zorigaiztoko tanto horretan, belaunean min hartu zuen. Gaur egun Gasteizen aurkitzen da errehabilitazio lanetan. Tarte batean, lesioaren inguruan eta etzi ofizialki martxan jarriko den Lau t'erdiko Txapelketaz hitz egin du.

Hasiera batean Lau t'erdiko Txapelketa jokatzeke moduan egongo zuelena pentsatzen zen. Baina duela gutxi ebakuntza berri bat egin behar izan dizute.

Lehenengo ebakuntza ongi ateratu zen, baina ondoren, berriz ingesatu beharrean izandu nintzen. Infekzio bat izandu nuen eta horrek dena atzeratu dit. Errekupeazio lanetan asko saiatu arren, azkenean belauna garbitzeko berriro ere

ebakuntza-gelara jaitsi behar izan du. Gauzak nahi bezala joan ez direnez, Lau t'erdiko Txapelketa galtzea tokatu zait. Baina nire ustetaz, txapelketen gainetik, garrantzitsuena belauna ongi jartzea da. Hala ere ezin dut ukatu txapelketa galtzeak pena eman ez didanik.

Azken ebakuntza honetatik osatzeko zenbat denbora beharko duzu?

Epeez hitz egitea oso erlatibo da. Ebakuntza behintzat ongi ateratu eta gustura nago. Orain denbora beharko dut, belaunak ere bere denborabar baitu. Jadanik lanean ari naiz baina oraindik puntuekin nago eta belauna handiturik daukat. Handitasun hori jaisten denean indartsuago hasiko naiz errekupeazio lanetan. Gauzak ongi joan ezker, abendu bukaerarako edo erdirako kantzaxetan egotea espero dut. Baina lesioek gauza

hori daukate, batzuetan espero baino agudoago osatzen dira eta besteetan beranduago. Une honetan epeez hitz egiteak ez du zentzu handirik, garrantzitsuena belauna ongi jartzea da, 6 hilabete izan, 8 hilabete izan edo 10 izan.

Hilabete hauek luze joango zitzazkizun. Alde ona bilatzen jarritu, hausnarketarako denborarik edukial duzu?

Hori beti esaten den zerbait da: gauza guztiek bere alde ona eta txarra dutela. Egia esan ez dakit

«Dena ongi joan ezker, abendu bukaeran edo erdialdean kantzaxetan egotea espero dut»

«Hala eta guztiz ere, epeez hitz egiteak ez du zentzurik, ongi jartzea da garrantzitsuena»

horrelako lesio batek zein duen alde ona. Niretzat bizimodu berri bat da, beti ohituta egondu bainaz udako partidetak; txapelketetara;

urteko prestakuntzara; beti zerbait jokatzen egotera... Hala ere egoera hau ez da berria, aurrez eskuetatik denbora asko geldirik egondu nintzen. Baina inoiz ez zara lesioetara ohitzen, normaltasunetik kanpo dauden gauzak dirrelako. Bestalde, badirudi askotan lesioek beste gauza batzuk egiteko denbora ematen dizutela, baina orduan inoiz baino lan gehiago egin behar izaten duzu, lesiotik errekupeatzeko. Goizez nahiz arratsaldez saioak edukitzen dituzu, egun guztia belaunarentzako izaten da eta egia esan, mementoz behintzat, hausnarketarako denbora gutxi izandu dut. Gauza guztietatik ikasten dela esaten da baina orain arte behintzat honetatik ez dudala deus handirik ikasi uste dut.

Udan Valentzian egon zinen, kirolarientzako goi mailako errehabilitazio zentro batean. Joan aurretik esperientzia polita izango zela esan zenuen, egoera berean aurkitzen ziren kirolariak ezagutzeagatik etabar.

Valentziara belaunarentzat onena hori zela pentsatuz joan nintzen.

Bertan ohituta daude horrelako lesioetara, goi mailako kirolarien zentro bat izaki. Oso esperientzia ona eta polita izandu da, eta berriz egoera berean aurkituz gero, gustura joango nintzateke. Lagun asko egin ditut, baina ez da ahaztu behar hara belaunagatik joan nintzela. Zoritxarrez, joan eta hilabetera, belauna nahi bezala ez zihoala ikusi genuen. Bigarren hilabetean buru-belarri saiatu ginen egoera horri buelta ematen baina ez genuen lortu.

Gogorlan egin ondoren, emaitzak nahi bezalakoak ez direnean, zer pasatzen da burutik?

Kolpe gogorra da. Alde batetik lesio batek denbora asko eskatzen duelako, lan asko egin duzulako, eta bestetik irteera berriro ere ebakuntza-gelatik pasatzea delako. Ez dira memento errazak izaten eta ez da ongi pasatzen. Baina lesioak horrela etortzen dira eta horrela hartu behar izaten dira: begiak itxi eta aurrera tiratu, iritsiko dira une hobek.

Begiak itxita zaudela, zenbat aldiz ikusi duzu zure burua azken pilota haren atzetik korrika?

(Barreak) Egia esatea nahi baldin baduzu, une hori oso gutxitan pasatu zait burutik. Herrian esan izan didate ea zertarako jarraitu nion pilota horri, ia ezinezkoa zela... baina nire jokatzeko modua horrelakoa da. Pilotari jarraitu egin nion eta ez nuen pentsatzen horregatik holako lesio bat izanen zela. Noski, atzera egiterik banu ez nion jarraituko. Baina nire jokatzeko modua da eta horregatik ez diot eman inongo bueltarik. Gauzak horrela suertatzen dira eta etortzen dena hartu eta segi aurrera. **Herrian egoteko aukera gutxi izan arren, herritarren babesa nabaritu zenuen, ezta?** Errehabilitazioan denbora asko egoten naiz eta egia esan herrira ateratzeko beta handiegirik ez daukat. Baina noski nabaritzen dela. Lehenengo lagunek animatzen zaituzte eta gero herrian animo faltarik ez da izaten. Hori eskertzekoa da. Nire ustez, azkenean pilota familia handi bat bezalakoa da eta herritik kanpora ere, nahiz eta baten edo bestearen jarraitzailea izan, inork ez du desio pilotari

bat edo kirolari bat lesionatuta egotetik. Pilota mundutik animo asko jaso ditut eta eskertzekoa da. **Lesionaturik egon zaren denboran, zerk harritu zaitu pilota munduan?** Valentzian ez nuen hemengo pilota ikusteko aukerarik izan, eta etorri nintzenen ikusi nuen lehen partida Zarauzko finala izandu zen. Aimar Olaizolaren jokoak harritu ninduen, oso ongi ikusi nuen: fresko eta pilotan erraz jokatzeko. Sentsazio izugarria ematen zuen. Gero, Pablito Berasaluzek adibidez ez nau horrenbeste harritu. Denbora asko darama goi-goi mailan jokatzeko eta nibel ikaragarria eman du. Irujok ere uda oso ongi bukatu du, pilotari eta txapeldu handia dela erakutsi du. Oinatz lesio batetik ateraberritan, joko justu xamar ikusten zen, baina San Mateo hauetan askoz hobekiago ikusi dut, freskoago eta joko ez ongi. Atzelarien artean, nire ustez, diferentziak Beginok markatu ditu. Beste norbait aipatu beharko banu, Mikel Beroiz izango litzateke. Pertsonalki asko gustatzen zai-

dan atzelaria da; serioa delako eta batez ere, kantxan presentzia handia duelako. **Pablito Berasaluzek gora egin duen bezala, agian Titin III.aren behearako gelditu da aurten agerian.** Nire ustez, partida jakin batzuk

«Valentziatik itzultzean Zarauzko finala ikusi nuen; Aimarren jokoak harritu ninduen»

«Atzelarien artean uda honetan, diferentziak Aritz Beginok markatu ditu»

«Lau t'erdiko Txapelketan faborito bezala Olaizola eta Irujo ikusten ditut»

kenduta, lehen baino baxuago dabil Titin. Azken urteetan joko maila handia erakutsi du baina agian, iazko Lau t'erdiko Txapelketaz

geroztik, bere maila pixka bat jaitsi du. Baina nire ustez hori ez da harritzekoa; harritzekoa orain arte egin duena izandu da. 40 urterekin ematen ari zen maila izugarria eta ikaragarria zen. Baxualdi txiki hau normaltasunaren barrenean sartzen dela uste dut.

Nola ikusten duzu etzi hasiko den Lau t'erdiko Txapelketa?

Faborito bezala Aimar Olaizola eta Irujo ikusten ditut. Bat aukeratu beharko banu... agian lehenengo Olaizola eta ondoren Irujo esango nuke. Hauen atzetik gero jende dezentre dago.

Horien artean gazte ugari.

Bai, ezustekoak emateko prest. Goi mailan ibili daitezkeen beste hainbat ere badira, eta zergatik ez, irabazteko aukerak dituztenak. Burura Oinatz etortzen zait, lau t'erdian jokatzeko ezaugarri handiak dituena. Gero Xala, Gonzalez... Eta pilotari gazteak. Olaetxea sartu dute eta ikusi beharko da zein maila ematen duen. Beste pilotari bat, ondoko herrikoa, Mikel Olazabal da. Iaz paper ona egin zuen eta aurten ere ona egin deza-

ke. Gero hainbat berrikuntza dauka, Mikel Beroiz, Aritz Lasa... Lasa gainera azpimarratzekoa dela uste dut. Dohain handiak dauzka neurri honetarako eta ezusteko bat baino gehiago eman ditzake.

» DI-DA BATEAN

- **Oinatz Bengoetxea?** Berarentzat distantzia aproposa dela uste dut.
- **Ekaiz Saralegi?** Lau t'erdian asko jokatzeko duen pilotaria, eta batez ere artista. Oso oso teknikoa da.
- **Mikel Olaetxea.** Ezker zoragarria dauka. Urte asko daramatza lau t'erdian maila handia duela erakusten.
- **Mikel Olazabal.** Agudoago edo beranduago golpe handia eman duen pilotaria. Ea aurtengo txapelketan gertatzen den hori.
- **Abel Barriolak parte hartuko balu, finalera?** Ez dakit. Dudarik gabe topera prestatuko nukeen txapelketa. Iritisi edo ez kantxak esango luke. Beraz, ez dago deus esaterik.

» 2009KO LAU T'ERDIKO TXAPELKETA

1/16 Finala	1/8 Finala	1/4 Finala	Finalerdietako ligaxka	Finala
LABRIT 2009/10/17				
BENGOETXEA VI BEROIZ	2009/10/25	2009/11/01		
URRETXU 2009/10/09	-	MTZ. DE IRUJO		
ARITZ LASA ARRETXE II				
LARRAINZAR 2009/10/10				
OLAIZOLA I OLAZABAL	2009/10/25	2009/11/01	2009/11/08	2009/11/08
----- 2009/--/--	-	TITIN III	-	-
XALA SARALEGI			2009/11/15	2009/11/15
----- 2009/--/--	-	-	-	2009/12/08
ONGAY PATXI RUIZ	2009/10/25	2009/11/01	2009/11/22	2009/11/22
ERRENTERIA 2009/10/17	-	OLAIZOLA II	-	-
RETEGI BI OLAETXEA				
GERNIKA 2009/10/12				
LEITZA BERASALUZE IX	2009/10/25	2009/11/01		
LEKUNBERRI 2009/10/11	-	BERASALUZE VIII		
GONZALEZ DIAZ				



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

H Hilberriak

JOAKINA TELLERIA ORIA
Atzohil zen, 82 urte zituela. Elizakoak eta Aita Santuaren Bederikapena hartu ondoren.
-Goian bego-

Senarra: Pedro Garaialde; seme-alabak: Paulo eta Enkarri Garmendia, Juan Ignacio eta Belen Karrera, Arantxa eta Miguel Royo, Bixente eta M^{re} Jesus Altuna, Jose Manuel eta Eider Armundarain, Peio eta Marian Aiestaran; bilobak: Elixabete, Josune, Mikel, Oier eta Laida; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaidiak.

Haren animaren alde otolitz bat eskatzen dizute eta arren etor zaituzte! GAUR ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN Alegiko SAIN JUAN BATAIAZ AILEA parroki elizan, GORPLA bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker. Aldez aurretik, mila esker.

ALEGIAN
2009ko urriaren 7an

Hilbidex: San Juan 46.1. esk. Oinarri: Gorputz-bela Tolosaldeko FUNERARIA VASCONGADA Tanatorioan egongo da, asteazkena arratsaldeko 18:40ak arte.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tososaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tososaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@irragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tososaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aizondo@tososaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetaldea@tososaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tososaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tososaldeko hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tososaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Zinema

■ **Tolosa.** Zinea euskaraz ikasleentzat Leidor aretoan Tinkok antolatu-tuta.

Erakusketak

■ **Tolosa.** Iñigo Altolagirrerren pintura erakusketa Aranburu Jauregian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.

■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

» IRRATIA

Txolarre irrateria

11:00-13:30. Tolosaldeko Ahotsa: Albistegia (Eguraldia, eskualdeko albistekak, oharrak, agenda...), Magazina, Lehiaketa eta disko eskainiak

13:30-14:00. Albistegia - Info 7.

14:00-15:00. Tolosaldeko Albistegia.

17:00-17:45. Musika nobedadeak.

17:45-18:00. Argia astekaria

18:00-20:00. Tolosaldeko Ahotsa (errepikapena).

20:00-20:30. Albistegia, Info 7.

21:00-23:00. Bide okerretik.

» TELEBISTA

28 Kanala

08:30. Verdini 1. **09:00.** Alex eta Alexis. **09:30.** Tolosaldean Gaur. **10:00.** Kalekantoian. **10:30.** Wazemank.

11:00. Erioklip. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** EH lau haizetara. **12:30.** Golb TB. **13:00.** Muka-Muka. **13:30.** Tolosaldean Gaur. **14:00.** Kalekantoian. **14:30.** Wazemank. **15:00.** Erioklip. **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** EH lau haizetara. **16:30.** Golb TB. **17:00.** Muka-Muka. **17:30.** Tolosaldean Gaur. **18:00.** Gipuzkoa kultura. **18:30.** Verdini 2. **19:00.** Ikusten. **19:30.** Tolosaldean Gaur. **20:00.** Klipak.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



Eskaintza aparta astebururako

TOLOSA ● Gogor heldu diote ikasturteari Bonberenean. Iraila igarota musika talde apartak igaroko dira Bonbereneako oholtza gainetik urrian zehar. Asteburu honetako eskaintza horien adibide izango da. Etzi, ostirala, Sorkun bakarlariak kontzertu akustikoa emango du. Irundarrak Kashbad

eta Fermin Muguruzarekin jo du, beste batzuen artean. 22:30ean hasiko da gaueko kontzertu bakarra. Larunbatean, berriz, bi talde ariko dira Bonberenean; 121 dB Valenciako taldeak *Assaig/Error* diskoa aurkeztuko du eta Lauroba donostiarrek (irudian) ere zuzeneko eskainiko dute. HITZA

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak



HITZAK harpidedun batentzat **sarrera pare** du

LAGUN ARO GBC Suzuki Manresa
saskibalo partida



Urriak 11 • Igandea
19:00etan
Donostiako Ilunben

HITZAK harpidedun batentzat **sarrera pare** du

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren baitan ospatuko den bertso saiorako



Urriak 10
Larunbata
17:30ean
Leitzako Udal Kiroledegian

sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira

sarrerak